

Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2019 FORU DEKRETU PROIEKTUA, honen bidez, aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia.

PROYECTO DE DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 125/2019, de 21 de agosto, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuaren bidez, batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten da; bestetik, UEFA Euro 2020 txapelketaren azken fasearen araubide fiskala garatzen da, eta, azkenik, aldatu egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Erregelamendua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak. Eta, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, foru-dekretu horrek, 12. artikuluko Bi eta Hiru atalen bidez, aldatu egin du denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutakotzat kalifikatutako etekinei aplikatu behar zaien erregimena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 14. artikuluan araututakoa.

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 125/2019, de 21 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia, se desarrolla el régimen fiscal de la fase final de la UEFA Euro 2020 y se modifican el Reglamento de desarrollo de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en materia de revisión en vía administrativa, el Reglamento de inspección tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, procedió, en los apartados Dos y Tres de su artículo 12, a la modificación, con efectos 1 de enero de 2019, del régimen aplicable a los rendimientos de trabajo calificados como obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo, regulado en el artículo 14 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.



Aipatutako 14. artikuluko horretako 1. zenbakiko h) letran sartutako etekinen kategoria berriari tratamendu espezifiko eta berezia —alegia, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako etekinen erregimenetik berezia— emateko beharra dela eta, komeni da, hori arautzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatzea. Hortaz, foru-dekretu honen helburua da abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuaren 12. artikuluko Bi eta Hiru atalen bidez xedatutako aldaketa baliogabetzea.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

La conveniencia de dar un tratamiento específico y diferenciado del de los rendimientos obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo a la nueva categoría de rendimientos incorporada en la letra h) del apartado 1 del mencionado artículo 14, aconseja que su regulación se produzca mediante la modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, siendo el objeto del presente Decreto Foral dejar sin efecto, en consecuencia, la modificación operada por los apartados Dos y Tres del artículo 12 del Decreto Foral 125/2019, de 21 de agosto.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.



Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2019ko aren (e)ko bileran eztatidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de de de 2019,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.*

Artículo Único. *Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril.*

Zenbait aldaketa egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori); hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril:

Bat. Kendu egiten da 14. artikuluko 1. zenbakiko h) letra.

Uno. Se suprime la letra h) del apartado 1. del artículo 14.

Bi. Kendu egiten da 14. artikuluko 4. zenbakia.

Dos. Se suprime el apartado 4 del artículo 14.



Azken xedapenetatik lehena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Disposición final primera. *Habilitación normativa.*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y producirá efectos desde el 1 de enero de 2019.

Bilbon, 2019ko           aren           an

En Bilbao, a           de           de 2019.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua  
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia  
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ